



Save the Children

Haurren eskubideei buruzko hitzarmena

15 urtetik 18ra bitarteko neska-mutilentzat egokitutako bertsoa



Laguntzen dute:



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

**Haurren Eskubideei Buruzko Hitzarmena
15 urtetik 18ra bitarteko neska-mutilentzat egokitutako bertsioa**

Haurtzaroaren Eskubideen Defentsa eta Sustapenerako programa

Lehenengo edizioa: 2009ko abuztua

Bigarren edizioa: 2011eko ekaina

Edizioa: Save the Children

Koordinazioa: Silvia Hernández

Koordinazioa Euskadin: Nahia Pérez de San Román

Testuaren moldakuntza: Silvia Hernández y Mercé Allés

Diseinua: Mercé Allés

Zuzenketa: Pepa Horno

Euskarazko itzulpena: Aztiri

Inprimaketa: San Martín Impresión Digital

DL: VI-232/2011

Iturriak:

-Haurren Eskubideei Buruzko Hitzarmena,

Save the Children, 2009

- Haurren Eskubideei Buruzko Hitzarmenari

egokitutako bertsioak "Nire eskubideak",

Save the Children, 1999

- www.elmundodenedina.org

- Haurren Eskubideei Buruzko Hitzarmena,

gazteentzako egokitutako bertsioa. Unicef 2005

Save the Children Euskadin

Manuel Iradier kalea 22, Bulego 1

01005 Vitoria-Gasteiz

Tel: 945 134368

euskadi@savethechildren.es

www.savethechildren.es

SARRERA

Gizaki guztiok ditugu eskubideak, eta haur eta nerabeek ere bai. Baina haur eta nerabeen kasuan hauen eskubideak bazterrean uzteko edo urratzeko arriskua handiagoa da, beren adinagatik eta eskubide horiek defendatzeko izan ditzaketen zailtasunengatik.

Haur eta nerabe guztien eskubideak babesteko, Nazio Batuen Erakundeak nazioarteko akordio bat idatzi zuten: Haurren eskubideei buruzko hitzarmena. Hitzarmen hori Nazio Batuen Erakundeko Batzar Nagusiak 1989ko azaroaren 20an onartu zuen.

Hitzarmen horrek haurra eskubidedun subjektu gisa, gizarteari bere ekarpena egiteko eta bere eskubideak defendatzeko gai den pertsona modura ezagutzen du lehen aldiz nazioarteko lege batean, eta beraz, ez da soilik babestu beharreko objektutzat hartzen.

Bereziki partaidetza eskubideetan (12. artikulutik 17.era bitartekoak) biltzen da ikuspegi hori; eta horrela, haurra eta nerabea subjektu sozialtzat hartzen da, eta inguruan duen guztian parte hartzeko eskubidea onartzen zaio: bere iritzia ematekoa, entzuna izatekoa, elkartzekoa eta bizitza pribatua izatekoa.

Hitzarmen hau lege bihurtu da jada guretzat, izan ere, Espainiako Gobernuak 1990. urtearen amaieran berretsi zuen. Horrek esan nahi du gure

herrialdeko haur eta nerabeak Hitzarmenean hartutako konpromisoen ildotik tratatu behar ditugula, eta edozein arlotako lege eta politikek eskubide horiek jaso behar dituztela.

Behar-beharrezkoa da eskubide guztiak betebehar batzuk ere badakartzatela nabarmentzea. Horrek esan nahi du, heldu, haur eta nerabe, guztiok pertsona guztion eskubideak errespetatzeko erantzukizuna dugula, gure eskubideak defendatzeko indar berbera erabiliz. Eskubideak urratzen direnean, egoera horiek salatze eta betekizuna dugu, eta pertsona guztiak beren eskubideez baliatzeko aukera izango duten ekimenak sustatu behar ditugu.

ZER DIO HITZARMENAK?

Mundu guztiko haurrek eta 18 urte arteko nerabeek bermatuta izan behar dituzten eskubideak biltzen ditu zenbait artikulutan Hitzarmenak.

Haurrekin lotuta dagoen erabaki bat hartzerakoan edo ekintza bat garatzerakoan beti kontuan hartu beharreko lau printzipiotan oinarrituta garatu zen Hitzarmena

Bereizkeriarik ez.

Hitzarmenean biltzen diren eskubideak berdinak dira haur guztientzat, berorien jatorria, sexua, erlijioa, hizkuntza, ezintasuna, iritzia

edo familia aurrekariak direnak direla ere (2. artikulua).

Haurraren edo nerabearen interes gorena.

Helduek, erakundeek eta agintariak haurrekin lotutako erabakiak hartzen dituztenean, haurrentzat onena denari lehentasuna emanez jokatu dute beti (3. artikulua).

Bizitzeko eskubidea.

Haur eta nerabe guztiak dute bizitzeko eta ahalik eta garapen egokiena izateko eskubidea.

Haurraren edo nerabearen ikuspuntua.

Haurrek eta nerabeek beraiekin lotuta dagoen gai orotan pentsatzen dutena esateko eskubidea dute. Arreta handiz entzun behar da zer esaten duten. Auzitegiek eta beste erakunde ofizial batzuek beraiekin lotutako erabakiak hartzen dituztenean, haurren eta nerabeen sentimenduak eta desioak kontuan hartuko dituzte (12. artikulua).

15 urtetik 18ra bitarteko neska-mutilentzat prestatu dugun Hitzarmenaren bertsio hau jatorrizko testuaren egokitzapena da. Neska-mutil guztiak eskubide horiek irakurtzera animatu nahi ditugu, ezagut eta errespetatuz, eskubide horiek urratzen dituzten egoerak sala ditzaten eta berorien eragina indartsuagoa izan dadin.





HAURREN ESKUBIDEEI BURUZKO HITZARMENA

1. ART. HAURREN DEFINIZIOA

Hitzarmen hau haur guztiei aplikatuko zaie, eta 18 urte bete arteko pertsona guztiak dira haur. Beraz, nerabe guztiak ere hor sartzen dira.

2. ART. BEREIZKERIARIK EZ.

Hitzarmenean biltzen direneskubide guztiak aplikatzen direla bermatu behar dute estatuek, neska-mutilen artean bereizkeriarik egin gabe, eta neska-mutilen eta horien familien sexua, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoak edo bestelakoak, jaioterria, etnia edo gizarte jatorria, maila ekonomikoa, ezintasun fisikoak, jaiotza edo bestelako edozein ezaugarri kontuan hartu gabe.



4

3. ART. HAURRAREN INTERES GORENA

Gizarte, administrazio edo justizia arloko erakundeek neska-mutilen interes gorena kontuan hartu behar dute haiei buruzko erabakiak hartu behar dituztenean. Horrek esan nahi du neska-mutilen interes gorenak eta horien ongizateak lehentasuna izango duela beste edozein interes motaren gainetik.

Estatuek konpromisoa hartzen dute neska-mutil guztiei beren

ongizaterako beharrezkoak diren babes eta arreta bermatzeko, beren gurasoek, tutoreek edo legez horien ardura duten pertsonak dituzten eskubideak eta betebeharrak kontuan hartuta.

Horrez gain, neska-mutil horiek zaindu eta babesteko ardura duten erakunde, zerbitzu eta elkarte guztiek ezarrita dauden arauak betetzen dituztela ziurtatu behar dute estatuek, batez ere, segurtasunari, osasunari, langileen kopuruari eta gaitasunari dagokienez.

4. ART. ESKUBIDEAK BETEARAZTEKO ESTATUEK DUTEN ERANTZUKIZUNA

Hitzarmen honetan jasotzen diren eskubide guztiak betetzen direla bermatzeko, gobernuek beharrezkoak diren administrazio eta lege neurri guztiak nahiz beharrezkoak diren bestelako neurri guztiak hartuko dituzte.

5. ART. GURASOEI ZUZENDUTAKO ORIENTAZIOA


Gurasoen ardurak, eskubideak eta betebeharrak errespetatuko dituzte estatuek, eta, neska-mutilek hitzarmen honetan jasotzen diren eskubideak erabil ahal izan ditzaten, babes eta orientabide egokia emango diete.

6. ART. BIZITZA DUINA IZATEKO ESKUBIDEA

Haur guztiek dute bizitzeko berezko eskubidea. Estatuek ahal duten guztia egingo dute neska-mutilen biziraupena eta garapena bermatzeko.

7. ART. IZENA ETA HERRITARTASUNA IZATEKO ESKUBIDEA

Haur bat jaiotzen denean, inskribatu egingo da, eta izena eta herritartasuna izateko eskubidea izango du; eta gurasoek ezagutzekoa eta gurasoek zaindua izatekoa.



8. ART. IDENTITATEA IZATEKO ESKUBIDEA

6

Neska-mutil guztiek dute eskubidea beren identitatea, herritartasuna, izena eta familiarteko harremanak babes diezazkieten.

9. ART. GURASOENGANDIK BEREIZITA BIZI DIREN NESKA-MUTILAK

Neska bat edo mutil bat ez da gurasoengandik bananduko, neska edo mutil horren onerako beharrezkoa ez bada. Gurasoak bananduta daudenean, neska-mutilek eskubidea dute beren amarekin eta aitarekin ohiko harremanak izaten jarraitzeko, horrela jokatzeari neska-mutil horien interes gorenaren aurka doanean salbu.

10. ART. FAMILIAREN BATERATZEA

Familia batu ahal izateko, edozein estatutatik irteteko edota sartzeko eskubidea egiten bada, estatuek modu positiboan, gizalegez eta eraginkortasunez erantzungo dute.

Neskaren edo mutilaren gurasoak estatu desberdinetan bizi badira, neska edo mutil horrek eskubidea izango du aldian-aldian amarekin edo aitarekin harremanak izateko.



11. ART. LEGEZ KANPOKO LEKUALDATZEAK ETA ATXIKITZEAK

Agintariek atzerrian neska-mutilak legez kanpo kanpora edo atxiki ditzaten saihestu behar dute. Gainera, legez kanpoko lekualdatzeen eta atxikitzeen aurkako neurriak hartuko dituzte.

12. ART. IRITZIA EMATEKO ETA ENTZUNAK IZATEKO ESKUBIDEA

TNeska-mutilek eskubidea dute gai orotan beren iritzia emateko, eta beroriekin zerikusia duten gai guztietan entzun diezaieten eskubidea dute.

Beraz, neska-mutilek eskubidea dute beraiekin lotutako prozedura judizialeetan edo administrazio prozeduretan entzun diezaieten.



13. ART. ADIERAZPEN ASKATASUNERAKO ESKUBIDEA

Neska-mutil guztiek dute adierazpen askatasunerako eskubidea. Eskubide horren barnean, inolako mugarik gabe, informazioa eta askotariko ideiak bilatzeko, jasotzeko eta zabaltzeko eskubidea ere sartzen da, betiere, besteen eskubideen aurka egin gabe.

14. ART. PENTSAMENDU, KONTZIENTZIA ETA ERLIJO ASKATASUNA

Neska-mutil guztiek pentsamendu, kontzientzia eta erlijio askatasuna izateko eskubidea dute, eta agintariek eskubide hori errespetatu behar dute.

Gainera, eskubide horren erabilieran gurasoek neska-mutilak gidatzeko dituzten eskubide eta betebeharrak errespetatu behar dituzte agintariek.





15. ART. ELKARTZEKO ESKUBIDEA

Neska-mutil guztiek elkartzeko eta modu baketsuan batzarrak egiteko eskubidea dute.

16. ART. INTIMITATERAKO ESKUBIDEA

Neska-mutil guztiek eskubidea dute beren bizitza pribatua izateko. Ez dauka inork eskubiderik neska-mutilen bizitza pribatuan, beren familiarenean eta korrespondentzian (sms-ak, posta elektronikoak, gutunak, etab.) bidegabeki eta legez kanpo muturra sartzeko.



17. ART. INFORMAZIO EGOKIA LORTZEA


Neska-mutilek askotariko iturrien bidez informazioa eta materiala eskura izan dezaten arduratuko dira agintariak, horien helburua berorien ongizate soziala, espirituala eta morala sustatzea eta osasun fisiko eta mentala indartzea denean.

18. ART. EGUNEROKO ZAINKETAN GURASOEK DUTEN ERANTZUKIZUNA

Neska-mutilek eskubidea dute gurasoak beren heziketaz eta garapenaz ardura daitezzen. Estatuiek eta agintariek behar besteko laguntza eta babesa eman behar diete gurasoei, hauek beren seme-alabak hez ditzaten.

19. ART. TRATU TXARREN AURKAKO BABESA

Neska-mutilek, eskubidez, edozein kalte mota, gehiegikeria edo tratu txarren kontra babestuta egon behar dute, eta, beraz, agintariek beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko dituzte. hori horrela izan dadin.



20. ART. GURASOENGANDIK BEREIZITA BIZI DIREN NESKA-MUTILEN BABES BEREZIA

Behin-behinekoz edo modu iraunkorrean familiarengandik bereizita bizi diren neska-mutilek agintariengandik babes eta laguntza jasotzeko eskubidea dute; eta berorien jatorri erlijiosoa, kulturala edo linguistikoa kontuan hartuta, hezkuntzan jarraitzeko modua dutela bermatu behar dute.

21. ART. BABESA HARRERA EDO ADOPZIO KASUETAN

Adopzio edo harrera kasuetan, lehentasuna izango du neska edo mutil horren interes gorenak.



22. ART. IHESLARIEN BABESA

Neska eta mutil iheslari guztiek babes berezia izan behar dute. Neska-mutilek hitzarmen honetako eskubideez gozatzeko egokiak diren babes eta giza laguntzak jaso ditzaten, egokiak diren neurri guztiak hartuko dituzte agintariak, neska-mutil horiez arduratzen diren erakundeekin batera lan eginez.

23. ART. NESKA-MUTIL EZINDUEN ESKUBIDEAK

Ezintasunen bat, fisikoa, psikikoa edo mentala, duten neska-mutil guztiek eskubidea dute beren duintasuna bermatuta izango duten bizimodu egoki eta betea izateko, betiere, beren kabuz baliatzeko gai izaten eta komunitatean parte hartzen lagunduko dioten baldintzetan. Ezintasunen bat duten neska-mutilek arreta berezia jasotzeko eskubidea dute, eta, ahal den neurrian, zerbitzu horiek doa-

koak izango dira. Ezintasuna duen neska edo mutil horren egoerari ondo doakion laguntza sustatu eta ziurtatuko dute agintariek.

24. ART. OSASUNERAKO ETA OSASUN ZERBITZUAK IZATEKO ESKUBIDEA

Neska-mutilek ahalik eta osasun mailarik onena izateko eskubidea dute, eta, gaixo daudenean, sendatzeko eta osatzeko zerbitzuak eta tratamendua jasotzeko eskubidea dute. Neska-mutil guztiek behar-beharrezkoak dituzten

laguntza medikoa eta osasun zerbitzuak dituztela bermatu behar dute agintariek. Horrez gain, gurasoek eta neska mutilek beren osasun eta elikaduraren esparruko oinarritzko printzipioak, higienearen arlokoak, ingurumen osasunari lotutakoak eta istripuei aurrea hartzeko neurriak ezagutzen dituztela ziurtatu behar dute agintariek, eta hezkuntzan sarbidea dutela eta ezaguera horiek aplikatzeko laguntza dutela bermatuko dute.





25. ART. BARNEALDI KASUAK ALDIAN-ALDIAN BERRIKUSTEKO ESKUBIDEA

Baldin eta agintariak neska edo mutil bat zentro batean sartu badute haren osasun fisiko edo mentala zaintzeko, babesteko edo tratatzeko, eskubidea du jasotzen duten tratamendua aldian-aldian ebalua diezaioten.

26. ART. GIZARTE ZERBITZUAK JASOTZEKO ESKUBIDEA


Gizarte segurantzako zerbitzuak eta gizarte laguntzak jasotzeko eskubidea dute neska-mutilek, neska-mutilen eta horien familien baliabideak eta egoera kontuan hartuta, horrelakoak jasotzea egoki denena

27. ART. BIZI MAILA EGOKIA IZATEKO ESKUBIDEA

Haur guztiek dute fisikoki, buruz, espiritualki, moralki eta gizartean garatzeko modua emango dieten bizi maila egokia izateko eskubidea. Gurasoek edo neska edo mutil horren ardura duten pertsonak neska edo mutil horri bere garapenerako beharrezkoak dituen bizi baldintzak emateko erantzukizuna dute. Eskubide hori bermatu ahal izateko laguntza emango die estatuek gurasoei.

28. ART. ESKUBIDEA

Neska-mutil guztiak dute hezkuntzarako eskubidea, aukera berdintasunean, betiere. Agintariak mundu guztiari derrigorrezko eta doako lehen hezkuntza bermatu behar diote, eta bigarren hezkuntzaren garapena sustatu behar dute. Eta goi mailako irakaskuntza eskura izan behar dute guztiak.




29. ART. HEZKUNTZAREN EZAUGARRIAK

Hezkuntzak neska-mutilen nor-tasuna, gaitasunak eta ezaugarri mentalak eta fisikoak ahalik eta gehien garatzera zuzendu behar du. Neska-mutilek pertsona guz-tien giza eskubideak eta oinar-rizko askatasunak errespetatzen ikasi behar dute. Horrez gain, gizarte libre batean beren ardurak hartuta bizitzeko prestatu behar ditu, ulermenean eta bakean, tol-erantzian, sexuen arteko berdinta-sunean eta herrien arteko adis-kidetasunean oinarrituta, betiere, eta natura ingurunea errespetatuz.



30. ART. GUTXIENGOEN BABESA

Gutxiengo etniko, erlijioso edo linguistiko bateko neska-mutilek eskubidea izango dute bere kulturaz gozatzeko, beren erlijioa praktikatzeko eta beren hizkuntza erabiltzeko.



31. ART. JOLASTEKO ETA ATSEDENA HARTZEKO ESKUBIDEA

Neska-mutil guztiak jolas egiteko, atsedena hartzeko eta beren adinari dagozkion jolas jardueretan parte hartzeko eskubidea dute. Kultura eta arte jardueretan parte hartzeko eskubidea dute, gainera, eta beraz, berdintasunez eta egokiro berorietan integratzeko aukerak eskaini behar dizkiete estatuek.



32. ART. LAN ARRISKUTSUEN ETA LANEKO ESPLOTAZIOAREN AURKAKO BABESA

Neska-mutilek eta nerabeek ekonomikoki esplota ez ditzaten eskubidea dute. Lanean ari badira, beren osasunerako edo garapen fisiko, mental, espiritual edo sozialerako arriskutsuak ez diren baldintzetan egin behar dute. Estatuak eskubide hori bermatzeko beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko dituzte legeen, administrazioaren, gizartearen eta hezkuntzaren arloetan.



33. ART. DROGA KONTSUMOAREN ETA TRAFIKOAREN AURKAKO BABESA

Estatuak beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko dituzte neska-mutilak legez kanpoko drogen erabileratik babesteko eta, aldi berean, horrelako substantzien ekoizpen eta trafikoan erabil ditzaten galarazteko.



34. ART. SEXU GEHIEGIKERIAREN ETA ESPLOTAZIOAREN AURKAKO BABESA

Neska-mutilek, eskubidez, babestuta egon behar dute edozein sexu gehiegikeria edo esplotazio motaren kontra. Honako hauek guztiak eragozteko neurriak hartu behar dituzte estatuek:

- Legez kanpoko edozein sexu jardueratan parte hartzera bultzatzea neska edo mutila edo horretara hertsatzea.

- Neska edo mutila esplotatzea prostituitzeko edo legez kanpoko beste sexu jarduera batzuetarako.

- Neska edo mutila ikuskizun edo material pornografikoetan esplotatzea.

- Edozein bitarteko teknologiko erabiliz (Internet edo telefono mugikorra, adibidez), neskaren edo mutilaren aurkako edozein gehiegikeria mota erregistratu eta zabaltzea.

35. ART. NESKA- MUTILEN BAHIKETA, SALMETA ETA TRAFIKOAREN AURKAKO BABESA

Estatuek beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko dituzte edozein helbururekin neska-mutilak bahitu, salerosi eta trafikoan erabiltzea eragozteko.



36. ART. BESTE ESPLOTAZIO MODU BATZUEN AURKAKO BABESA

18

Neska-mutilak bere ongizaterako kaltegarriak izan daitezkeen esplotazio modu guztien aurka babestuko dituzte estatuek.

37. ART. TORTURAREN AURKAKO BABESA ETA ASKATASUN GABEKO EGOERETAN EMAN BEHARREKO BABESA

Neskarik edo mutilik tortura ez dezaten edo gizalegearen aurkako tratu krudel eta umiliagarririk eman ez diezaioten arduratu behar du estatuak. Ez da heriotza zigorrik ez betiko kartzelarik ezarriko hemezortzi urtetik behararako haurrek egindako delituen-gatik.

Neska edo mutil bat atxilotu, kartzelatu edo giltzapetu behar bada, beti legeak zehazten duenaren arabera jokatu da, eta besterik ezin egin denean soilik egingo da halakorik. Giltzapetu edo kartzelatutako neska edo mutil oro errespetuz tratatu da beti, eta adin horri dagozkion beharrak kontuan hartu dira. Eskubidea dute laguntza juridikoa azkar eman diezaioten, eta familiarekin harremanetan jarraitzeko eskubidea dute, halaber.



38. ART. HAURRAK SOLDADU GISA ERABILTZEAREN AURKA BABESTEA

Gatazka armatuen kasuan eta, bereziki, haur eta nerabeei dagoz-
kien kasuetan, nazioarteko giza
zuzenbidearen esparruko arauak
errespetatzeko konpromisoa
hartzen dute estatuek. Gainera,
15 urtetik beherako pertsonak
zuzenean gatazka armatuetan

parte ez dutela hartuko ziurtatu
behar dute estatuek, eta, beraz,
estatuetakoa indar armatuek ezin
izango dituzte erabili soldadu gisa
adin horretako haurrak.

Horrez gain, gatazka armatuen
eraginpean bizi diren neska-muti-
lak babestuta eta zainduta daudela
ziurtatzeko hartu daitezkeen
neurri guztiak hartuko dituzte
estatuek.

39. ART. SUSPERTZEKO ETA GIZARATERATZEKO ESKUBIDEA

Edozein abandonu motaren,
esplotazioen, gehiegikerien,
torturaren, tratu txarren edo
gatazka armatuen biktima
izan diren haurrak fisikoki eta
psikologikoki bere onera itzultzeko
direla eta gizarateratzen direla
ziurtatzeko, egokiak diren neurri
guztiak hartu behar dituzte
estatuek.

40. ART. LEGE AUZIAK DITUZTEN NESKA-MUTILAK

Neska edo mutil bat delitu bat egiteaz akusatzen dutenean edo errudun deklaratu denean, eskubidez, duintasunez tratatu behar dute. Neska edo mutil horren adinaren arabera izango da tratatu hori, eta berori gizarteratzeko modua sustatu behar da. Gainera, neska edo mutil horrek Giza Eskubideak eta pertsona oroaren oinarritzko askatasunak errespetatu dituztenak sustatu eta indartu behar da.

Estatuek, besteak beste, honako alderdi hauek bermatu behar dituzte:

- Legearen arabera neska edo mutil hori errudun dela frogatzen ez den bitartean, errugabetasun ustekizunari eustea.
- Neska edo mutil horri, luzamendutan ibili gabe, aurka dituen karguei buruz informazioa ematen zaiola ziurtatzea eta beronen defentsa prestatu eta garatzeko laguntza juridikoa duela bermatzea.

Lege penala hausteaz akusatutako neska-mutilentzat, lege,

agintaritzea eta erakunde bereziak sustatu behar dituzte estatuek. Gutxienean adin bat ezarriko da, eta adin horretatik beherako neska-mutilek legeak urratzeko gaitasunik ez dutela ulertuko da. Erakundeetako zentroetan baneratzeko aukeraren aurrean, neurri alternatiboak ezarriko dira, besteak beste, irakaskuntza programak eta lanbide heziketa, aholkularitzea, zaintzapeko askatasuna, zentzatzeko etxeak.





41. ART. LEGERIK EGOKIENA

Haurren eskubideak, hitzarmen honetan bilduta ez ezik, estatu baten barneko legetan edo estatu horrek sinatutako nazioarteko legetan ere jaso daitezke. Neska-mutilei beraientzat egokiena eta onuragarriena den legea aplikatuko zaie.

42. ART. HITZARMENAREN ZABALKUNDEA

Estatuek konpromisoa hartzen dute hitzarmena hau bai pertsona helduei eta bai haur eta nerabeei ezagutarazteko.

43. ART. HAURREN ESKUBIDEEN BATZORDEA SORTZEA ETA LANEAN HASTEA

Haurren Eskubideen Batzordea sortu da honen bidez, hitzarmen honetan estatuak beren gain hartu dituzten betebeharrak betetzerakoan egin dituzten aurrerapausoak ebaluatzeko xedez.

44. ART. BATZORDERAKO TXOSTENAK

Hitzarmen honetan jasotzen diren eskubideak betetzeko hartuko neurriei buruz eta eskubide horiez gozatzeko orduan egin diren aurrerapenei buruz batzordeari txostenak igortzeko konpromisoa hartzen dute estatuek.

Hitzarmen haur berretsi eta indarrean sartzen den unetik hasita, bi urteko epea izango du hitzarmena berretsi duenak txosten hori aurkezteko. Ondoren, bost urtean behin beste txosten bat aurkeztu beharko dio.

45. ARTIKULUTIK 54. ERA:

Batzordeak beste erakunde batzuekin dituen harremanei eta hitzarmeneko alderdi juridikoei buruzko artikulua, bai eta berau berresteari, indarrean sartzeari eta nazioarteko lege honen originala gordetzeko lekuari buruzkoak ere.



Liburuxka honekin lotutako terminoen Glosategia:

HITZARMEN:

herrialdeen arteko akordioa. Hitzarmen hori berresten duten herrialdeek, legez, berorren edukia bete behar dute.

KULTURA:

komunitate bateko kide garela sentiarazten diguna. Hauek dira kulturaren adierazpide batzuk: hizkuntza, sukaldaritza, ohiturak, abestiak, elkarrekin harremanetan jartzeko modua.

ESKUBIDE:

jaiotzen denetik pertsonak, heldu, haur nahiz nerabe izan, berea duen gaitasuna edo araua.

EGINBEHAR:

zerbait egiteko erantzukizuna. Haurren eskubideei buruzko hitzarmeneko artikulua guztiei lotuta, bada nahitaezko eginbehar bat: agindu edo arau horiek haur eta nerabe guztiei eta, oro har, pertsona guztiei errespetatu behar zaizkie. Elkarrekin lotuta baitaude eskubideak eta eginbeharrak.

BERRETSI: onartu, baieztatu. Agiri bat onetsi, eraginkorra izan dadin.

BERTSIO: zerbait kontatzeko modu desberdina. Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren bertsio hau 15 urtetik 18ra bitarteko neska-mutilentzat egokitu da. Jatorrizko testua eta testu horretako 54 artikulua ezagutu nahi badituzu, Save the Childrenek argitaratutako “La Convención sobre los Derechos de Niño” liburuxka erabil dezakezu.

Helbideak eta Telefonoak:

Zure eskubideez norbaitekin hitz egin nahi baduzu, gehiago jakin nahi baduzu edo zure eskubideren bat ez dela errespetatzen uste baduzu, jarri harremanetan arartakoarekin

24

**“HAURREI ETA
NERABEEI LAGUNTZEKO
TELEFONOA”
116111**

**ARGIBIDEAK
010**

**SAVE THE CHILDREN
Tel.: 945 134368
euskadi@savethechildren.es
www.savethechildren.es
Manuel Iradier, 22,
solairuarte, 1. bulegoa
01005 Vitoria-Gasteiz**

